

K. SANTAMARIA: PENTSALARI KATOLIKOEN BILGUNE
Donostiako Solasaldi Katolikoak (1947-1959)

Gabonaldiko¹ bidaia luze batetik itzultzean, nire eguneroko *Egunkaria* atzeratu batekin egin dut topo gure sukaldean: "Karlos Santamaria hil da" zioen, titulu handi batean. Ez dut, ba, bertatik bertara azken agurra emateko aukerarik izan. Doluz! Joan da lagun zaharra, *Jakin* berritzen lagundu ziguna, bere artxiboko ateak ireki zizkidana, eta azkenik, bere lan oparoa biltzean maisu paregabea izan duguna. Goian bego!

Hilondoko berriemaileek hainbat alde ezberdin gogorarazi digute, Karlos Santamariaren heriotza dela-eta: haren pentsamendu pertsonalista, jakitun matematikaria, euskaltzalea, ekintzale kristaua, etab. Bestalde, Gipuzkoako Aldundiak eskatuta egin eta argitaratzeko prest dauzkan idatz-bilduma eta azter-lana aipatu dira. Horrek guztiak bere bidea egingo du, noski, euskal nortasunaz pentsamendu unibertsalista batetik egin den gogoetarik aberatsenetako bat eskaintzen digun Santamariaren gogoeta ez baita galdu edo izkutatzekoa.

¹ *Euskal Fundazioa*-k emandako erraztasunei esker burutu da lan hau. Eskerrik asko, ba, erkunde horri.

Maisu sokratikoa

Hemen, sobera itzalean geratu den alde bat gogorarazi nahi diot irakurleari: Santamariak oso gogoko izan zuen herritarren arteko ideia-trukaketa eta pentsamendu-lankidetzak. Elkarriketaz ez zuen D. Karlos-ek arrisku bezala sentitu, aitzitik giza gogoaren emalgarri bezala baino. Maisu sokratiko bat zela gogoratu du norbaitek, eta egia da. Egiaren bilaketa pausu-pausuka egin beharreko elkarlana zen Santamariarentzat.

Gaztetatik miretsi nuen Santamariarengan halako buru karteriari ongi trabatu bat: ideiak argi, eta beraien azalpenean ere gardentasun estimagarria, inolako barrokismo nahasgarriarik gabea. Burua ongi egituratua zuelako, baina betiere bere malgutasuna galdu gabe, ondoko belanaldikoontzat maisu aparta izan da, ideiatan noski, baina baita ideia eta asmoak gizartean egikaritzean ere. Horregatik aipatu izan da euskal gizarteko hainbat ekimen kulturetan Santamariak nolako esku ona izan zuen, taldeak eratu edo indarberritzen, erakunde berriak proposatzen, etab.

Dohain horiek Euskal Herrian bezala erabili izan zituen Santamariak nazioartean ere, Mendebaldeko Europan eta Nazioarteko erakundetan. Guztiek ezagutu izan zioten Don Karlosi gizartean, erakundetan, mota orotako taldetan ideien lankidetzak sustatu eta gidatzeko zuen trebetasuna. Horretaz esan nahi dugu hemen zerbait.

Gaitasun hori erakutsi zuen ekimen asko izan zuen Santamariak bere bizitzan zehar, baina, agian, ez dago horren frogaririk Donostiako Nazioarteko Solasaldi Katolikoena baino adibide hoberik, hamarka oso bateko lana izan baitzen hura.

Badira ia hogeiren bat urte Solasaldi haietako artxiboa maitatzeko erraztasunak eman zizkidala, eta laster ikusi ahal izan nuen zer-nolako irekitasun eta harreman zabalez eratutako ekimena zen hura. Berrikiagotan, berriro heldu behar izan diogu artxibo hari, Solasaldien historia bildu ahal izateko. Geroz-

tik azterlana eginda dago, eta hemen laburtuta bilduko dut Donostiako Nazioarteko Solasaldi Katoliko haren historia.

Donostiako Solasaldiak (1947-1959)

Donostiako Solasaldiak, Udako Ikastaro bezala jaio ziren gerraurrean, Mateo Mujikak deiturik (1934), eta behin bakarrik ospatu ahal izan ziren orduan (1935). Gerrak eta ondoko urteek parentesi handi bat ekarri zuten, harik eta 1947an "Conversaciones Católicas Internacionales" bezala eratu ziren arte (=Solasaldiak). Santamaria izendatu zuten Batzorte Babestaile eta Beterazlearen Idazkari. Besteak beste, Julio Urkixo ere tartean izan zen.

Handik aurrera -esan beharra dago- Santamaria izango zen guztiaren "alma mater" eta arima, bai ideiak proposatzen, eta baita etxe barruko eta atzerriko harremanetan ere. Gero eta gehiago guztiaren ardatz eta gidari agertzen da Santamaria garaiko agerietan, horretarako Espainian zituen laguntzak bilduz, Erregimen frankistaren barneko kontraesanez baliatuz, Erroman edo Parisen zituen adiskideen lankidetzaz xaxatuz.

Elkarriketan nazioartekotasuna zaintzeko, topaketa haietako hizkuntza ofiziala frantsesa izan zen (nahiz eta gero ez praktikan osorik hala izan). 1947an Solasaldiei hurrengo ekitean, lehendik lankide izandako zenbait gogorarazi zuen Santamariak, alde batetik nahiz bestetik ageri ziren susmoak desegiteko asmoz agian: Bonet katalana, Mathieu (Akizeko Gotzaina), Madrileko hainbat (Zaragueta, Artajo, Maeztu, etab.), Jiménez Fernández (Sevilla), Dempf (Bonn), Amintore Fanfani (Milano), etab.

Frankismoaren nazioarteko isolamentuak (1947-1952) sortutako ahuleziez baliatu zen Santamaria Donostiako Solasaldi haiek biziberritzeko, beti ere garaiko itxitasun ideologikoan ziri-rikuak zabaltzeko asmoz. Intelektual katolikoaren nazioarteko topaketa nagusienak izatera iritsi ziren Donostiako haiek.

Asmoa, ingurua, gaiak, solaskideak

Hastapenez, Elizbarrutiko Gotzainaren ardurapean zeuden Solasaldiak, lehenengo Gasteizkoaren menpe eta gero Donostiakoarenean, baina ekimena Elizbarrutiko kristau laikoena izan zen. Lehenengo ekitaldiaren ondoren (1947), Erromak ere bere oniritzia azaldu zuen, eta horrela, ofizialki onartuta agertu zen eliz ekimen bezala, bere helburu nagusietan:

Aprovechando la ventaja de nuestra situación fronteriza, podemos ofrecer a las juventudes intelectuales y a los más destacados profesores católicos de Europa ocasión propicia a una mutua comunicación de ideas, intercambio de puntos de vista, contraste de tesis y doctrinas, particularmente útiles y adecuados a la amplitud del principio cristiano, católico y universal.

Solasaldiok lanerako beren Arautegia izan zuten (1949), eta Hierarkiak bezala Erregimenak, eta alderdi politikoek, bertatik bertara behatu izan zituzten beren jardunean, hautatutako gaiak "irristagarriak" zirelako. Estatuan eta atzerriko prentsan Solasaldiek oihartzun zabala izaten zutelako, gainera. *L'Humanité* paristarra (1947), Euskal Erresistentzia (1948), *Falangea* (1951), etab. arduratu ziren, bakoitza bere erara, Solasaldi haietat. Integrismo katolikoak ere izan zuen zer esan, eta batzuetan zer salatu ere: Solasaldiak ez ziren "seguruak".

Urtez urte egindako gaien hautapena oso zaindua izan zen beti: hemen eta erbestean askori entzun eta gero aukeratuak. Dena den, Santamariak beti leialki eutsi zion gaien gaurkotasuna zaintzeari. Ikusi besterik ez dago 1947-1959. etako gai hautatuen zerrenda: nazioarteko solidaritatea, Giza Eskubideak, Iritzi-gidariak eta nazioartea, Batasun europarra, Abertzaletasuna, Kristautasun denborala, Elizako laikoaren lekua, Obedientzia eta askatasuna, Eliza eta politika, Elizaren aldakortasuna, etab.

Gaiak garrantzizkoak izanik ere, Solaskideen aukeratzea zen beste egiteko "arriskutsua", Solasaldiak kontrolatuago nahi zituztenentzat. Garaia itxuraz nahiko lasaia izanik ere, 1945-1960. urteetan pentsamendu katolikoaren berrikuntza burutu

zen, hain zuzen Vatikanon II.aren eztabaidetan askorentzat ustegabeen egun-argiratuko zen irekitasun berria orduan ari zen indartzen. Korrante tradizionalenak Erromako Unibertsitateetan biltzen ziren bitartean (eta Espainiakoetan zer esanik ez), Erteuropan (Frantzia, Belgika, Alemania) Teologia berritze azkarra ari zen gertatzen.

Santamariak ongi zekien nondik nora zebilen, eta bere lan-kide eta Solaskideak aukeratzean, joera ezberdinei leku eman baldin bazien ere, irekitasun berrikoei aukera eman zienean, gurean haize ezezagunak sartu zituen, ongi oharturik sartu ere. Maritain izan zen orduan irekitasun horren sinbolo bat (1952). Azkenean, lortu zuen Santamariak berorri dei egiteko oniritzia (baita Gobernutik ere), baina Maritain-ek berak ez zuen etorri nahi izan. Hala ere, nabaria izan zen beti Donostiako Solasaldietan Maritain-zaleen parte hartzea.

Lagunarte zabalean

Deiak egitean, ahal zelarik, katolikoen mugimendu laikoak oso gogoan hartu izan ziren, Espainian bezala atzerrian ere. Hala nola, lehenik Herrera Oriaren "Asociación Católica Nacional de Propagandistas" izan zen pisurik handiena izan zuena (Santamaria bera erakunde horretakoa zen). Beronen bidez lortu zuen Idazlariak Erregimenak Solasaldiak ez itoaraztea, eta horretan Artajo, Martín-Sánchez, Ruiz Jiménez, Guijarro, Muniaín eta abar izan zituen laguntzaile. Espainiatik etorri zen, ordea, beste taldeetarik ere: Roviroso (HOAC), Bonet (AC), Calvo Serer eta R. Paniker (Opus Dei), Ferrán eta Gomis-tarrak (*El Ciervo*), etab.

Solaskide atzeritarren artean hizkuntza frantsesekoek izan zuten lekurik nagusia (ezaguna izan da beti Santamariak kultura eta Eliza frantsesekin izandako hurbiltasun intelektual eta pertsonala): Action Catholique, Secours Catholique, Pax Christi edo Syndicat d'Ecrivains Catholiques bezalako erakundeak Donostian egon izan ziren. Bide batez gogorarazi beha-

rra dago hemen Frantzia/Espainien arteko harreman intelektualetarako lehendik (1938) zegoen lagunarte bat, eta Uztaritzén "Université Internationale des Pyrénées" izenez bildu izan zena. Bere harremanak osatzeko lagungarri ona izan zuen Santamariak hau ere.

Baina, elkarte-molde horien ondoan, bere esanahi pertsonalarengatik pentsamendu katolikoan pisuko izenak ziren batzuk ere Solaskide izan ziren Donostian: Leclercq, Thils, Congar, Henry, Soras edo Urs von Balthasar teologoak; Dawson, Latreille, Duroselle, Dansette, Aubert historilariak; Sciacca, Marías, Aranguren, Delacroix edo Guitton filosofoak; Trias de Bes, De la Pradelle, Von Verdross juristak; Moeller literatur kritikaria, eta abar luzea ageri da Solaskideen zerrendetan. Eta mugimendu edo talde katoliko "sozialak" ere aintzakotzat hartuta ageri dira: Folliet etorri izan zen "Economie et Humanisme"-tik, Soras "Action Populaire"-tik, Hoyois "Union de Malines"-tik.

Espainiako puntareneko izenak Solaskide donostiarren artean zerrendaturik daude: Gotzainetan, Kalahorrakoa (García), Kordobakoa (Menéndez-Reigada), Barbastrokoa (Cantero), Bilboakoa (Morcillo), etab.; Unibertsitatietan, Salamanka, Bartzelona, Sevilla, Zaragoza, Madril eta abarretako izenak aurkitzen ditugu.

Atzerrikoetan ugariak dira Unibertsitate-irakasleak: Alemaniatik hemen egon ziren Frankfurt, Mainz, Bonn edo Münsterkoak; Austriatik eta Belgikatik ez zen falta izan: Viena, Liège, Leuven; Ingalaterratik, King's College; Italiatik, Erroma, Genova, Padova, Milano, eta abarretakoak.

Solasaldietako estatistiketara gatzela, ospatutako jardunaldi guztietan (1935, 1947-1957, 1959), 612 lagun/egonaldi kontatu ahal izan ditugu (Solaskide dezente behin baino gehiagotan etorri zen): egonaldietako 259 izan ziren Estutu espainolekoak, eta 353 atzerrikoenak. Orotara, Solaskideen kopururik altuena 1949koa da, 59 lagunekin, gerora kopuru hori zerhait mugatu egin nahi izan zen, eztabaidaren onetan izango zelakoen, baina betiere berrogeita hamarrekoaren inguruan ibili zen.

Mezu-bedapen abalegina

Donostiako Solasaldi Katoliko haiek ez ziren bilera-aretoan itota geratzen, ezta gutxiagorik ere. Idazkaria beti ahalegindu zen, bilera-tokiko oihartzunak ahalik serioskien eta zabalen hedatzen. Horretarako, Prentsa-bulegoa eratu ohi zen, eta kasu batzuetan kazetari katoliko onenei berariazko deia egin zitzairen, beren egunkarietatik-eta mintza zitezen. Arreta honi esker, garai-ko Euskal Herriko Prentsan ere ikus daitezke Solasaldietako kronikak, baina bertako komunikabide-inguru horretatik harata-go ere iritsi zen Solasaldien ahotsa, Penintsula osoan. 1959ko datuen arabera, Espainiako 23 egunkarik eman izan zuen Solasaldien berri, eta atzerriko lauk (*Le Monde* barne zela).

Espreski deitutako pentsalari-kazetariak hainbat tokitatik etorrita jardun zuten Solasaldietan: egunerokoetan, Pariseko *L'Aurore* (A. Frossard), *La Croix* (L. Guissard, E. Gabel, J. Guillon), *Le Monde* (H. Fesquet) eta *Le Figaro* (Ch. Pichon); *La Libre Belgique* (M. de Corte); Madrileko *ABC* (J. Zaragüeta), *Ya* (P. Cantero). *L'Osservatore Romano* ere presente egon zen (L. Bernucci, G. T. Salvemini), eta berdinartzeko *El Correo Catalán* (F. Condomines). Bi Irrati aipagarri ere ageri da berriematen: *Radio Vaticana* (F. Bolgiani) eta Londresko *BBC* (A. C. F. Beales).

Baina, pentsamenduaz arduratuentzat, egunkariak bezain garrantzizkoak izan zitezkeen astekari eta hilabetekari orokor-rrak edo kultur aldizkariak. Hauetan ere leku ona izan zuten Solasaldietako albisteek. Europako astekari katoliko bizenek ireki izan zituzten beren orrialdeak Donostian esandakoak jasotzeko. Ez ditugu denak aipatu, baina komeni da bat edo beste izendatzea ere: Frantzia *Informations Catholiques Internationales*, *Témoignage Chrétien* edo *La France Catholique*; Espainian, *Signo* eta *Ecclesia*; Ingalaterran, *Catholic Herald* eta *The Tablet*; Italian, *Il Nostro Tempo*, eta abar.

Kultur aldizkarietan, orokorrak eta berezituak har daitezke gogotan. Lehenengoen artean gogora ditzagun *Civiltà Cattolica*,

El Ciervo, Indice, Herder Korrespondenz, Arbor, Esprit, Economie et Humanisme edo *Etudes*: guztiok eta beste hainbatek eman zuten Donostiakoaren albiste eta iruzkinik; baina mundu intelektualean Solasaldi haiek izan zuten oihartzuna ezagutzeko, Teologia eta Filosofiako aldizkari berezituak ezin dira ahanzi. Horrelako 22 aldizkariren berri behintzat badugu: Madrileko *Pensamiento* edo *Religión y Cultura*-ren ondoan, erbestekoak dauzkagu, hasi Paris edo Lyon-dik eta Frankfurt, Genova, Brusela, Leuven, Genova, Firenze edo Padova-raino: *Chronique Sociale de France, Frankfurter Hefte, Giornale de Metafisica, La Vie Intellectuelle, Studi Politici Internazionali*, etab.

Honek guztiak ezohiko gertakari baten aurrean jartzen gaitu: nik dakidanez, Euskal Herrian halako oihartzun zabalarekin sekula izan den pentsalarien urteoroko bilera jarraitu emankorra gertatu zen Donostiako Solasaldi haiena. Hamarhamabi urtetako lana, eta besterik gabe ere, gidari izan zenaren oroitzapena gure pentsamendu-historian segurtatzeko lain den jardura.

Gatazta ideologiko eta instituzionalak

Lankidetza horiek gorabehera, Solasaldiak urteoroko segida leial harekin aurrera ateratzea ez zen batere samurra gertatu, besteak beste, fronte kontrajarri askoren artean lan egin behar zelako. Eragozpenak talde intelektual ezberdinen errezeloetatik zetozen (gogoratu besterik ez dago, adibidez, Frantziako katolikoak zein zatiturik zeuden: egiaz, Donostian izaten zuten beren topaleku amankomun bakarra), eta Espainiako Elizak, orokorrean, susmoz beteta begiratzen zien erbestetik etor zitezkeen ideiei. Bestalde, Erregimen frankista autarkia ideologiko zaindu batera bildurik zegoen; hala ere, 1947-1952.etan kanpora ireki beharra nabaria izan zuen (blokeoaren ondorioz), eta, hortaz, utzi egin behar izan zuen zerbait egiten; baina 1952-1953.etatik aurrera, amerikarrak inguratzea eta Konkordatua lortu zirenetik, Solasaldien ate-zirrikutua ez zen hain premiazkoa.

Eta Eliza Katolikoaren barnean, Teologi korrante berriek aurrera egin ahala, integrismoaren indarrak ere biltzenago joan ziren, tradiziozko joeren defendatu-beharra bortitzago sentituz edo (adibidez, Kontzilio bezperako gertakari batzuk horren lekuko). Arrazoi horiek guztiengatik, 1954tik aurrera Solasaldiak berritze-une bat ezagutu zuten beren egiturari (berehala aipatuko dugun Batzordeen eratzea) eta Hierarkiarekiko epe zailago batean sartu ziren. Hasieratik, Santamariak laguntza baliosa izan zuen Cicognani Nuntzio eta gero Kardinalarengan, eta Madrileko bere eginkizuna beteta Erromara itzultzean ere, agerian nahiz isilpean Solasaldien alde jokatzeko saiatu zen berau (Santamariak Dell'Acqua-ri 1955ean egin zion ikustaldikoan, adibidez).

Baina 1954an Madrilera Nuntzio berria etorri zen, Antoniutti, euskaldunon ezagun zaharra. Uztailaren 27an egin zuen bere sarrera ofiziala Donostian, Artzain Onaren elizan hitzaldi batekin, iraganeko oihartzun zakarrak berrituz. Biharamunean Solasaldiak ireki zituen, eta ikusi zen gizona Solasaldietako izpiritu irekitik urrun samar zebilela. Ondoko hilabeteek erakutsi zuten lehen inpresio hura zein egiazkoa zen.

Handik aurrera, Eliza Katolikoko Hierarkiaren barneko bi korrante kontrajarrien artean lan egin beharrean aurkitu zen Santamaria, Solasaldiak beren jatorrizko izpirituan gorde eta gidatu ahal izateko: alde batetik, betidanik lagun izan zituenekin kontatuz (Cicognani, Montini, Dell'Acqua) eta bestetik doktrina-jarrera hertsia bat gogortuz zetozenak (Antoniutti, Ottaviani: Ofizio Santuko Burua azken hau).

Solasaldien inguruko giroa eta beharrak aldatzen ari zirela ikusirik, antolamendu egitura berria eman zitzaion Solasaldiei, eta handik aurrera hiru Batzorde izango ziren guztiaren gobernu hoberako (1954ko ekaina): 1) Gotzainen Batzorde Babes-
tailea, 2) Teologoaren Batzordea, eta 3) Sekularren Batzorde Beterazlea. Lehenengo biak, 1956an berrituak izan ziren, gainera. Hau dena ez zitzaion batere gaizki etorri Santamariari bere ku-

deakuntzan, zeren horrekin Idazkaritzak hurbileneko lankideen artean babes bat izan baitzuen.

Horrela, ba, Antoniutti-k 1955eko abuztuan Ofizio Santuaren oharra Donostiako Gotzainari helarazi zionean, Font i Andreu-ren zalantza-malantzen artean ez galtzeko Santamariak nora jo ere izan zuen. Izan ere, Ottaviani-ren eskutik eta Antoniutti-ren bidez zetorren oharra kolpe txarra izan baitzen benetan:

La Suprema S. Congregación del Santo Oficio, que ha seguido siempre con el debido interés el desarrollo de las "Conversaciones Católicas Internacionales de San Sebastián", acepta la constatación hecha por algunos observadores de que las mismas pueden servir para una armonía de pensamiento y de acción, en la verdad católica, cada vez mayor entre los intelectuales de las diversas naciones.— Pero la S. Congregación no puede ocultar su preocupación por el hecho de que la presencia de intelectuales, eclesiásticos o seculares, bien distintos por sus ideas, quizás erróneas o al menos demasiado audaces y peligrosas, haga crear alrededor de las Conversaciones una atmósfera de duda y prevención, tanto más cuanto que algunos de los ponentes de dichas Conversaciones han sido objeto de algún aviso por parte de la Suprema Autoridad.— Por tanto, deben observarse, en particular, las siguientes cautelas:

- 1) Los Obispos no asistan a las sesiones sino como Superiores o Maestros, y no como conversadores equiparados a los demás.
- 2) No se debe invitar más que a personas de segura doctrina.
- 3) No deben asistir seminaristas a las sesiones.
- 4) Debe haber uno o más teólogos, de reconocido prestigio, con el cargo específico de resumir las relaciones expuestas, de hacer notar los posibles errores y de hacer resaltar la verdad.
- 5) Las publicaciones de los Documentos deben ser revisadas por el teólogo designado para controlar las conversaciones, y no podrán editarse sin ser previamente entregadas a la censura eclesiástica.

(Solalsaldien artxihoan, "Problemas con el Sto. Oficio" karpeta: "Nunciatura Apostólica en España", Prot. nº 1.523/55, 1955-abuztua-20).

Horren aurrean, Idazkaritzak hiru ekimen hartu zituen Solalsaldien lana segurtatzeko: 1) Gotzain eta Teologoek Batzorde-etako kideen iritzia bildu zituen, 2) Erromatik egindako ira-

dokizunak betearazteko arauak eman zituen, 3) Erromako bertako harremanak eguneratzen ahalegindu zen.

Gotzain Batzordeko lagunen artetik batez ere Bueno Monreal, Menéndez-Reigada eta Cantero-ren babes birretsia, eta teologoek (Sauras, Salaverri, Cirarda) aurkeztutako prozedura-oharrak zinezko babesa ziren, Solasaldien geroa segurtatzeko (1955eko udazkenean eta neguan). Bazirudien, ba, hemen bertan lanean ari zirenak ez zirela kokildu Erromako oharren aurrean.

Horrekin batera, Batzorde Betearazleak 1956ko urtarilaren 4an, Solasaldietako Gotzainen leku hierarkikoa bermatzeko bere hitza eman zuen, eta Solaskideen hautapena handik aurrera nola egingo zen adierazi. Arau berri hauekin 1955eko esperientzia egin ondoren, Erromara joan zen Santamaria, behar edo komeni ziren pausuak emateko.

Aita Bidagor jesuita (Dell'Acqua-ren irakasle izana) gertatu zitzaion eskumakilarik onena, Hiri Santuko labirintoan ez galtzeko. Premiazkoa zen hau dena, zeren Donostiako Gotzaina guztiz izuturik baitzegoen Nuntzioaren aurrean. Bidagor-ek lagundurik egon zen, beraz, Santamaria Dell'Acqua Estatu-Idazkariordearekin, 1955eko urriaren 17an: Solasaldien alde agertu zen Dell'Acqua, eta ekin honen izpiritua ongi konpreniturik zuela erakutsi zuen bere iradokizunetan. Bestalde, diplomazia vatikandarraren arauak ezagutuz, Nuntziorekin harremanetan izateko eskatu zion Santamariari, haina Bidagorren bidezko harreman zuzenetarako bideak irekita utziz (Nuntzioarekiko mesfidantza puntturen bat bazuelako ote?).

Solasaldietako arduradun hurbilen artean laguntza onak ziotuen, ba, Santamariak, baina katebegi ahul bat ere bai, guztiz erabakiorra gerta zitekeen Donostiako Gotzainarengan. Dell'Acqua-k leial segiko zuen ondoko hilabeteetan (Aita Santuaren izenean egindako gutuna, horren lekuko: 1957ko abuztuaren 7koa). Baina Santamariarentzat zaila zen, Solasaldien jatorrizko izpiritu libre hura galdu gabe, Ofizio Santuko azken

arauak betearaztea, eta komenigarri ikusi zuen Erroman horretaz zerbait aurrez aurre esatea.

1958ko apirilean egon zen berriro Dell'Acqua-rekin Solasaldietako Idazkaria. Erromatik jasotako arauak zuten aplikaziozailtasuna ulertu zuen Dell'Acqua-k, eta Morcillo-ren inguruan egin zitekeen Batzorde-berreraketa bat onartu zen bileran. Bazirudien, ba, urak beren bide onera zetozela. Baina Erroman, aldi berean, bi irizpide eta politika kontrajarri ageri ziren: bata, Santamariak landu eta Estatu-Idazkaritzaordean ageri zena, eta bestea, Santamariagandik urrun, eta Nuntzioak landuta agertutako zena, Ofizio Santukoa, alegia.

1958ko uztailaren 9ko datarakin helarazi zuen Nuntzioak Ofizio Santuaren ohar berri bat. Lehen hitzak oso zorrotzak zitu-
en Donostiako Gotzainari iritsi zitzaion agiri hark:

El S. Oficio se considera en el doloroso deber de manifestar que las Normas e Instrucciones dictadas por los Emmos. Purpurados en el miércoles, día 20 de julio de 1955, y oportunamente comunicadas, no han sido observadas más que en una mínima parte.

Los Emmos. Cardenales, por tanto, en la reunión del miércoles, 25 próximo pasado, han determinado cuanto sigue:

1.— *Insistir sobre las Normas ya emanadas del S. Oficio y advertir que su observancia es condición sine qua non para la supervivencia de las reuniones;*

2.— *Reducir el número a pocos invitados, de segura ortodoxia y altamente cualificados;*

3.— *Exigir que los organizadores de las Conversaciones envíen a la Nunciatura Apostólica los nombres de los conferenciantes y el tema de la conferencia asignada a cada uno de ellos;*

4.— *Sustituir el sistema de las Conversaciones por el de las discusiones, sobre la base de sólidas y completas relaciones elaboradas por seguros maestros.*

Vuestra Excelencia encargue al Excmo. Sr. Obispo de San Sebastián, como ordinario del lugar, de la ejecución de las susodichas Normas, anteriormente establecidas en la citada Feria IV, 20 de julio de 1955, como también de las nuevas Normas que ahora se comunican.

El Excmo. Sr. Obispo de San Sebastián haga comprender claramente al Sr. Santamaría que, si en las Conversaciones se continúan profesando ide-

as atrevidas o peligrosas y no se siguen las Normas referidas, la Santa Sede se verá obligada a condenarlas.

(Artxiboan, "Problemas con el Sto. Oficio" karp.: "Comunicación del Sto. Oficio, según carta del Excmo. Sr. Nuncio Apostólico, de 9 Julio 1958").

Horra, ba, bat-batean bidea malkartuta, eta agian itxita. Solasaldietako Idazkaritzak, 1958ko jardunaldiak gainean zituelarik, ezinezkoa ikusi zuen gauzak arau berrien arabera modu itxuroso batean eratu ahal izatea; edota, beharbada, nahiago izan zuen egoera berria iraul arazteko patxada hobez lan egitea, eta urte hartako Solasaldiak hurrengo urterako uztea erabaki zuen. Horregatik, ba, jada deitutakoez hitzordurik ez zuten izan Donostia 1958an: L. Verdú, Guissard, Rovasenda, Schramm, Léonard, Fesquet, González Ruiz, Guitton, Sciacca, Möller eta abar Solasaldirik gabe geratu ziren.

Baldintza berrietara moldatuz

Gauzak berbideratu nahirik, beste bi bidaia egin zituen Santamariak Erromara (1958ko udazkenean lehenengoa, 1959ko apirilean bigarrena). Lehenengo horretan Estatu-Idazkaritzara ez-ezik, Ofizio Santura ere iritsi zen, eta honetan hitzezko berriematearekin batera, idatzizko txosten bat ere utzi zuen, zeuden arazo eta zailtasunak, eta irtenbide posibleak gogoratuz. Azkenik, entzundakoetatik bazirudien Solasaldiak aurrera eramatea nahi zela Erroman, baina Elizbarrutiko Gotzainari zeregin zuzen-nagusiagoa emanez. (Zoritxarrez, Santamariak gero eta argiago ikusi eta nozitu zituen Font i Andreuren muga pertsonalak, Solasaldien gidaritza hurbil hori eramateko).

Hala ere, lan-prozedura berri eta bizkor baten bidez, lortu zen Donstian Ofizio Santuak onar zezan Barne-Arautegirako proposamena idaztea, lau kapitulu nagusitan emana (1959-02-17): 1) Gaiaren hautapenaz. 2) Solas-lagunen hautapenaz eta txostenen prestakuntzaz. 3) Teologoek Batzordeaz, eta 4) Eztabaida-ordenaz eta Apezpikuen parte hartzeaz. Burututako lan honek bide eman zuen Erromara beste bidaia bat egiteko, eta

Donostiako Gotzainaren gutun batekin joan zen Santamaria Hiri Santura, Gotzainaren beraren bitartekari bezala. Gotzainak ere egin zuen bere ikustaldia, eta berorren ondoren, Ofizio Santuan bideratuta geratu ziren urte hartako Solasaldiak.

Ofizio Santuak, ba, ia osorik hartu zuen, azkenik, Solasaldien gobernu zuzen edo bitartekatua. Konponbide hitzartuak, ba, bideak ahalbideratu baina herstea ekarri zuen; ikusteko zegoen, noski, irtenbide aukeratuak nola bideratuko ahal izango zuen Solasaldien gobernu praktikoa. Elizako eta gizarteko ingurugiroa usnatzeko Santamariak beti erakutsitako senak izan zuen ondoko erabakietan pisurik franko.

1959ko Solasaldiak ospatu ahal izan ziren Donostian, baina etorkizuna ez zegoen une artan batere segurtaturik, nahiz eta Hierarkiarekikoak argituta zeuden. Santamariak honela laburtu ditu Solasaldiak mozteko arrazoiak: Nuntzioaren susmo eta bekoskoa, garaiko giro intelektualaren aldakuntza, Erromaren eskakizun batzuen gehiegikeria, lanaren nekea, ordura arteko barne-jokaera irekiagoaren haustura.

Katolikoen arteko 1959ko giroa urrun zegoen 1947kotik, oso. 1959ko urtarrilean egin zuen Joan XXIII.ak Kontziliarako deia: harez gero, intelektual eta jakitun eliztarrei elkarrizketaleku ofizial eta zabalago bat ireki zitzaien, eta nolanahi ere, Donostian bildu ohi zen asko eta askok Kontzilioaren inguruko lanetan izango zuen bere lantegi leinargia eta aukera historikoa, inork gutxik aurreikus zezakeena.

Paradoxa pare handi batekin aurkitzen gara, ba, hona iristean: Ofizio Santuaren garaipena itxurazkoa izan zen bakarrik, Solasaldiei dagozkienetan, eta Donostian Solaskide izandako hegal aurrerazaleenak, jardunaldi haiek moztean, Kontzilioan aurkitu zuten pentsamendu-berrikuntzarako aspaldidanik nahi zen berrikuntza-lekua. Jakin ere gabe, Solasaldien bide-zidorra kamino zabalera irten zen batere ustegabeen.

Balioespen historikoa

Euskal Herrian gaur egun ditugun arazo eta gogoeta arruntenetatik aski urrun geratu dira Solasaldiak. Hala ere, orduan erabilitako gaiak berrogei edo berrogeita hamar urte geroago ere interesgarriak eta ezagutzekoak gertatzen dira. Horrek berak erakusten du nola eta zenbateraino asmatu zituzten etorkizuneko arazoak orduan gai haiek mahain gainera ekarri zituztenek.

Solasaldiak ekimen "katoliko" bezala aurkeztu eta eratu ziren. Eta horren barruan pentsamendurik aurrerazaleenari bide ematen saiatu ziren, aurreko pentsamolde tradizionalagoaren hersturak hautsiz. Kristau sekular argi batzuren obra izan zen hori, neurri handi batean.

Solasaldien *balio sozio-kulturala* agerian dago: katolikoen artean nazioarteko gogoeta zuzpergarria eta ideia-trukaketa bizkorra sustatu zituzten, eta ahal izan zen neurrian, jakitun berezituon hainbat ideia jerdarteraino ere eramán zuten. Esate baterako, boterearen, gizartearen eta pentsamendu librearen arteko zerikusiak argiro aztertuta ageri dira Solasaldietan. Gaur egungo irakurleak ere eskura ditu, argitaratuta, orduko kezka eta lanak *Documentos* aldizkarian (1949-1956), horixe izan baitzen Solasaldien barnean Santamariak kaleratu zuen beste lan bat, aldizkariarena. Hala ere, beldur naiz Solasaldiei ez ote zitzaizkien nazioarten etekin gehiago atera gurean bertan baino.

Ez dago dudarik Donostian *pentsamendu katolikoa* aberastu egin zela, eta korrante irekienak bere barne-trinkotasunean irabazi egin zuela, koherentzian eta hemen sortutako harremanetan. Taldekako heuristika praktikoa bat ere ageri da Solasaldietan, inguruetao jatitun zenbaitentzat molde berrikoa. Hautatutako gaiak pentsamendu katolikoa kezka eta galdera modernoetaz aurrez aurre begiratzera sakatu zuten, bestalde.

Espainiako giroan, Solasaldiek *balio sozio-politikoa* izan zuten gainera, gerrateoste hartan indarrean zegoen zurruntasun

ideologikoa astindu eta gogoetan kanporako leihoak ere irekiz. Pentsalarien arteko hesi-molde ezberdinak hausten lagundu zuten Solasaldiek.

Santamaria eta bere taldeak meritu handiko gidaritza izan zuen jardunaldietako esperientzia: Hierarkia eginkizun hartara erakarriz, alde batetik, Espainiako pentsamentu katoliko elkorrena ere bestelako pentsamoldeekin elkarriketatzeri bilduz, eta behin baino gehiagotan Europa katolikoko bururik argienak modu iraunkorrean Solaskide bihurtuz.

Solasaldiek katolikotasunean zuten beren muga, baina tolerantziarako ariketa serioa gertatu ziren haiek, eta 1945aren osteko gerraondoan indartu zen ideologia ezberdinen arteko elkarlanerako izpiritua bizirik ageri da, katolikoen artera mugatu ziren jardunaldi haietan. Gizalege demokratikoaren utopiarantz lan egin zuten Solasaldiek.

1947an, une-unean eman zitzaien hasiera gerraondoko Solasaldiei, eta 1959an, seguraski, bere aroa beteta eman zitzaien amaiera, ez porrot egin zutelako, baizik eta bere eginkizuna beterik zutelako, Santamariak berak geroago urte haiek deskribatzear esan digunez.

Joseba Intxausti